



## “Ikusiko duzu nork irabaziko duen Euskadi Saria, Bildu Lakuara ailegatzen denean”

**Fermin Etxegoien I**  
Neurona eta Zeurona

Deabruaren abokatua zen lehen.  
Abokatuaren deabrua da orain.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Hemen, **aldeanistotik** aldenduz, unibertsaltasuna aldarrikatzen duen anti-heroi arrakastatsua!

Et et et... Bat nator, soil-soilik, “arrakastatsu” hitzarekin. Ez ni nahastu, mesedez, oraingo gazteekin. Gu Erasmus izan ginen *avant la lettre* (ingeleza jakin gabe).

**Erasmusa ala lehen eleberria idatzi eta Espainiako Kritikaren Saria, Euskadi Saria eta abar jaso dituen espabilatua? Ez duzu lotsarik?**

Lotsarik? Jota al zaude? Sariak irabaztea *gozada* bat da, argal egotea bezalakoa; *goza-da* bat. Gomendatzen dizut...

**200 hitz baino gutxiagorekin osatuta dagoen nobela batekin sariak irabaztea, jendeari aurpegira barre egitea da, ordea. Utikan!**

200 hitz, ez beti ongi antolaturik –askotan, gaizki antolaturik–, batek baino gehiagok ohartarazi didanez. Eskerrak irakurleak –milaka irakurle!– ez diren konturatu.

**Esango dute berriz sariak eta koiuntura politikoa estuki loturik daudela...**

Gutziz egia da; ikusiko duzu nork irabaziko duen Euskadi Saria, Bildu Lakuara ailegatzen denean (laster, beraz).

**Telebista kritiko pipertua, musika aditu gatzatua... Orojakile ozpindua ala saltsa guztietako perrexila zara zu?**

Lola Floresek esaten zuen moduan, sinesgarritasun piperrik gabe, “langile xalo bat besterik ez naiz”.

**Langile xalo bat, ala Ekaitz Perfektuetan barrena, Gazteako uhinetan garamatzen marinela zaharra?**

Pop musika arte minor bat da, edozein ergelek egin dezake kantu on bat. Pop kantu onak urteotan egiteari eustea, ordea... Segundoa eta mendea gurutzatzen diren tokian behar luke Ekaitz Perfektuak.

**Segundoa eta mendea gurutzatzen diren tokian, erdal esaera hauxe; ofizio asko dauzkana, pobrea seguru!**

Oparotasun materialaren semea naizenez gero, ez dut infernurik espero.

**Ai ene, hizkuntzak erretratatzeko gaituen garaiotan, ni erdal esaerak euskaratzen... Larria al da mediku jauna?**

Lasai; nire burua ezagutzeaz, pozik –*enchanté*– nago neu ere.

**Zure burua hainbeste ezagutzen baduzu, esadazu egia: zuk handitan euskara teknikaria izan nahi zenuen.**

Euskara teknikari guztien ama, menturaz... Tira; Xabier Amurizaren *Euskara Batuaren Bigarren Jaiotza* da bidea, zinez diotsut.

**Enfin, oñatiarra bazara behintzat. Diozunez, munduko jende “soportableenetakoa”...**

Aldaparik igo gabe, Oñatitik mundura irteteko... San Prudentzioko zubia zeharkatu beharra dago. Logikoki, askok nahiago izaten dute buelta-erdi eman. ■